

**DEIALDIA, ANDRA MARI ZAHAR ETXEKO ERIZAIN LANPOSTUA
BETETZEKO, OPOSIZIO-LEHIAKETA SISTEMAKO HAUTAPROBEN BIDEZ.
272682A ESPEDIENTEA.**

AKTA- BEHIN BETIKO KALIFIKAZIOAK.

Lesakako Andra Mari egoitzako Batzarrak 2025eko irailaren 22an harturiko erabaki baten bidez, deialdi bat eta haren oinarriak onetsi dira erizain plaza bat oposizio-lehiaketa bidez betetzeko, lan-kontratudun finkoaren araubidean.

Deialdia 2026ko otsailaren 19ko NAOko 36. aldizkarian argitaratu zen.

2026ko apirilaren 28ko Lesakako Udaleko alkatearen 325/2026 Ebazpenaren bidez onartutako eta baztertutako izangaien behin betiko zerrenda onetsi zen, lehiaketaldia egin eta xedatu hautapen-prozesuko lehen proba (teorikoa) 2026ko ekainaren 2an egingen dela, goizeko 10:00etan, Lesakako udal liburutegian (Komentu karrika 1, Lesaka).

Ondoren, 2026ko ekainaren 26an elkarrizketa egin zen eta argiratu ziren emaitzak. Irekitako epean ez da alegaziorik aurkeztu.

12. oinarria jarraituz eta hautaprobak bukaturik, Lesakako Udalan, 2026ko uztailaren 13an, goizeko 10:00etan, bildu da epaimahaia, probak gainditu dituztenen zerrenda onartzeko, puntuazio hurrenkeraren arabera, eta puntuazio altuenarekin gainditu dituen izangaia izendatzeko proposamena egiteko:

–Epaimahaiburua: Ladis Satrustegui Alzugaray, Lesakako Udaleko alkatea.

–Lehen epaimahaikidea: Misael Narros Martín, egoitzen kudeaketako teknikaria.

–Bigarren epaimahaikidea: Laura Apezteguia Alzugaray, Lesakako Andra Mari egoitzako zuzendaria.



Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.eus/>

Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoa kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.eus/eu/>



0013002425226194991038

–Hirugarren epaimahaikidea: Begoña Aracues Macicior, Lesakako Andra Mari egoitzako ordezkari sindikala.

–Epaimahaikide idazkaria: Maria Jose Larrayoz Ariztegui, Lesakako Udaleko idazkaria.

Epamahaiak erabaki hauek hartu ditu:

1.- Lehiaketako, oposizio-aldiko eta elkarrizketako azken kalifikazioak behin betiko onartzea.
Puntuazioaren arabera, honako hauek dira emaitzak:

	MERITUAK	PROBA TEORIKO- PRAKTIKOA	ELKARRIZKETA	OROTARA
1.-***8624**	24,69 PUNTU	50,00 PUNTU	7,17 PUNTU	81,86 PUNTU
2.-***6544**	14,82 PUNTU	57,00 PUNTU	9,03 PUNTU	80,85 PUNTU

2.-Gainditu dutenen zerrenda iragarki-taulan argitaratzea, puntuazioaren arabera ordenatuta, eta puntuaziorik handiena duen izangaiaren aldeko izendapen-proposamena egitea.

3.-Izendapen proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoko hogeita hamar egun naturaleko epean, deialdian ezarritako baldintzak betetzen dituela frogatzeko agiriak aurkeztu beharko ditu proposatutako izangaiak Lesakako Udalaren erregistro orokorrean; zehazki, honako hauek:

Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.eus/>

Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoan kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.eus/eu/>



- a) Nortasun agiri nazionalaren fotokopia, edo izangaiaren nazionalitatea eta identitatea frogatzen dituen bertze agiri baliokideren batena.
- b) Tituluaren jatorrizko agiria edo kopia konpultsatua, edo hura lortzeko eskubideak ordainduak dituela erakusten duen ordainagiria.
- c) Euskaraz jakitearen frogagiria.
- d) Medikuen Elkargo Ofizialak emandako osasun ziurtagiri ofiziala, erakusten duena ez duela akats fisiko nahiz psikikorik edo eritasunik atezainaren eginkizunak betetzea eragozten dionik.
- e) Zinpeko deklarazioa, adierazten duena ez dagoela eginkizun publikoetan aritzeko desgaitua edo gabetua eta ez dela kendua izan inongo administrazio publikoren zerbitzutik.
- f) Zin egitea edo hitzmatea Nafarroako Foru Eraentza begiratu duela, Konstituzioari eta legeei men egiten diela eta karguaren eginkizunak zintzo beteko dituela.

4.-Proposamena Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da eta udaleko iragarki taulan jarriko.

Eta adostasuna adierazteko, akta hau sinatu da, idazpuruan adierazitako tokian eta egunean.



Código seguro de verificación que puede ser consultado en la sede electrónica <https://sedeelectronica.lesaka.eus/>

Egiaztapen-kode segurua egoitza elektronikoa kontsultatzen ahal da: <https://sedeelectronica.lesaka.eus/eu/>



0013002425226194991038

